

'BERTSOLATA' 2001

Finalistekin jaialdia, Zuberoako kantuak, 'Saio mitologikoa' eta beste 5 ekitaldi

■ Gaztetxoentzako saio berezia, Bertso pilota, 'Al Garrotin' saioa, Bertso trama kalean eta Erronda izango dira
■ Abenduaren 18an hasiko da ■ 'Iraulio Pattalone' bertso taldeak antolatzen du eta udalaren laguntza du.

IRAULIO Pantalone Bertso Kabiak aurkeztu du 6garren *Bertsolata*. Abenduaren 18an (datorren asteartean) hasi eta zortzi egunetan bertsoarekin lotutako zortzi espektakulo izango dira. Orain arteko filosoriari eutsiz, estilo eta tankera desberdinetakoak; eta tartean nobedadeak.

SEI FINALISTA

Igandean Bertsolari Txapelketako finalean kantatuko duten zortzi bertsolarietatik sei Hernaniko jaialdian izango dira: Lujanbio, Egaña, Kolina, Iturriaga, Elortza eta Maia. Txapelketako preparazioa eta jaialdietako bizitasuna bilduko dira Sandiusterrin.

UMEENTZAT SAIO BEREZIA

Aurten, aurrengo aldiz, ume eta gaztetxoentzat propio egindako saioa izango da *Bertsolatan*. Orain artean, bertso eskolako gaztetxoek saioa egiten zuten, baina, helduentzat. Aurten, bereziki ume eta gaztetxoentzako neurria egingo dute. Bertso eskolako gaztetxoekin batera, Jon Maia eta Nerea Elustondo arituko dira kantari.

DOMINIKA ETA NIKO ETXART, AITA-SEMEAK

Zuberoako kantu afaria da beste nobedadeetako bat. Dominika eta Niko Etxart aita-semeak, Larralderekin batera, Zuberoako kantuak eta bertsoak kantatuko dizkigute afa-londoa, beren eztarri zoragarrarekin. Arizmendi jatetxean izango da.

'AL GARROTIN' SAIOA

Al Garrotin saioa ere nobedadea da. Katalunian ere badaude inprobisatzaileak eta eskolak sortzen ere ari dira. *Bertsolatan* katalanak eta hernaniarrak saio bat egingo dute elkarrekin. *Al Garrotin* Katalunian batzuk inprobisatzeko era-



Peru lurramendi kantari, Jon Otxotorena ondoan eta Jon Apaolaza atzean. Hernaniko taldea Gipuzkoako txapelduna da, aňorgarrekina batera.

biltzen duten doinu bati jarritako izena da. Garin tabernan da.

SAIO 'MITOLOGIKOA'

Saio mitologikoa, berez, *kortometraje* baterako saio bat da. Oihane Enbeitaren bertso batzuk sartuko dituzte *korto* horretan. Saioa ez du zuzenean Iraulio antolatuta, baina, Hernaniko bertso taldeari interesgarria iruditu zaio tankera horretako esperimentu eta berrikuntzetarako Hernani aukera-

tzea. Horrexegatik, eta bide berriak ere bultzateko, Bertsolaren egitarauan sartu du.

Abenduaren 28an Kaleko trama: saio sorpresa kaleetan. Abenduaren 30ean, igandean, *bertso pelota* Tilosetan. Bertsolari eta pelotariak elkarrekin eta elkarren kontra. Eta, abenduaren 31an, aurtengo Bertsolata bukatzeko Urte Zaharreko erronda. Erronda Ohitura Zaharrak elkarteak antolatzen du. □

ABENDUAK 18
Asteartea
Gaztetxoentzat saioa
Biterin, 16:00etan

ABENDUAK 22
Larunbata
Xüberuako kantu afaria: Niko Etxart, Dominika Etxart eta Laralde. Arizmendi

ABENDUAK 26
Asteazkena
Saio Mitologikoa: Amuriza, O. Enbeita, A. Agirre eta J.M. Irazu.
Biterin 19:30etan

ABENDUAK 27
Osteguna
Al Garrotin emanaldia eta bertsolariak.
Garin 22:00etan.

ABENDUAK 28
Ostirala
Kaleko trama.
19:00etan.

ABENDUAK 29
Larunbata
Bertso jaialdia: Egaña, Lujanbio, Kolina, Maia, Iturriaga eta Elortza.
Sandiusterrin, 18:30etan.

ABENDUAK 30
Igandea
Bertso pilota.
Tilosetan
12:00etan.

ABENDUAK 31
Astelehena
Urte Zaharreko Erronda, Ohitura Zaharrak elkartearekin batera.
18:00etan, plazan.

MOLOTOFF IRRATIA (FM 99.2)

'Hernaniko kultur panorama' gaurko tertulian

MOLOTOFF Irratian hama-bostean behin tertulia izaten da, astelehenez. Herriko gaien inguruan edo mundu mailako gaien bueltan herritarren iritziak jasotzen dira.

KULTURA AZTERGAI

Gaurko tertulian aztertuko den gaia, 'Hernaniko Kultur panorama' da. Kulturaren egoera orokorra, ekitaldiak, azpiegitegurak eta abar.

Hori guztia aztertzeko sei herritar gonbidatu ditu programara Molotoff Irratiak: Lurdes Etxeberria, Udaleko kultur zinegotzia; Andoni Tolosa, kantaria eta AEKKo irakaslea, Patxi Barriga, Musikazalea eta Batxurizopa taldeko kidea; Pepi Arrospide, Jai Batzordeko kidea; Estitxu Eizagirre, Bertso Eskolako kidea eta Jaxone Usandizaga, AHTrenkontrako taldeko kidea.

Gaur 22:00etan da. Zuzenean entzuterik ez duenak, asteazkenean 14:00etan. □

Harri tailan apuntatzeko epea ostirala arte

HARRI taila ikastaroa urtarrean hasiko da Kultur etxeak antolatuta. Asteazkenean 18:00etatik 20:30etara, nahi duenak badu aukera artista sena desarrolatzeko. Horretarako ostirala izango du izen emateko azken eguna. Biterin bertan. □

PEÑA OTAÑO ELKARTEA

Barrikotea ostiralean, abenduaren 14an. Afaltzera dijoan, elkartearen bertan eman behar du izena, asteazkene-rako. Sagardoa Barkaiztegikoa izango da. □

Skoda Octavia Combi 4X4 .

Obsesionatzen gaituzte teknologiak eta segu gurpiletako trakzioa Haldez sistemarekin, A eta gidariaren nahiz ondokoaren aire-poltsa gaitu toki zabalak: 1.412 litrorainoko toki eta leku zabalak bidaiariarentzat. Erakartze sunak: serieko osagaiekin sartuak daude Cli



MENABI

Txingurri pasealekua 26 Herrera auzoa - Donostia Tel. 943 40 42 43

ZINGI ZANGA

jatetxea

Eguneko menua

1.000 pztan.

Etxeko sukaldaritza

d f g c

Florida 54 - HERNANI

GOIKO ARDOAK



EL COTO

Joseba Gorostegi Goikoetxea

Tel 943 55 05 29 - Mob. 657 77 71 46



PROCOLOR ZENTRUA

Landaribar, s.l.

Pintatzeko ekipoa
Industria eta dekoraziorako pinturak
Pintatutako paperak

Kardaberaz 45 - Tel 943 552131-HERNANI

Udalak herritarrekin bilerak hasiko ditu 2002-ko inbertsioak eztabaidatzeko

■ Aurrenengo bilera asteazken honetan da, abenduak 12an, 19:30etan pleno aretoan ■ Udal gobernua bere inbertsio proposamena azalduko du.



Mertxe Etxeberria alkatea (erdian) eta Batasunako 4 zinegotzi, pleno batean.

UDALAK jarri du martxan *Aurrekontu partehartzaileen* prozesua eta aste honetan bertan hasiko dira bilerak. “Garantziatsua da udal aurrekontua ere denon artean egitea, herriaren geroa denon artean eraikitze” dio Mila Apeztexea alkateordeak Kronikari esandako hitzetan.

BI BILERA

Aurten iaz baino bilera gutxiago izango dira: 3 edo 4, dena. Aurrenengoa asteazkenean egingo da eta, batez ere, bilera informatiboa izango da. Udal gobernua azalduko di-

tu: **bat**) orain arteko gastu korrientea zein izan den (perso- nala, mantenimentua eta abar); **bi**) orain arteko inbertsioak: zenbat eta zertan inbertitu den; eta **hiru**) udal gobernuak datorren urterako duen inbertsio proposamena esplikatuko du. Eta horrekin batera, zenbat inbertitu lezakeen ere azalduko die herritarrei.

Udal gobernua 2002 urterako duen inbertsio proposamena herritarrei azaldu ondoren, beste bilera bat egingo da abenduaren 19an, asteazkena, jendearen ideak eta proposamenak biltzeko.

EZTABAIDA HIRU TALDETAN

Batasunako udal taldeak eta herritarrek egindako proposamenak biltzean, beste bilera bat edo bi egingo dira datorren urteko inbertsioak eztabaidatu eta erabakitze. Eztabaida horiek taldeka egingo dira. Talde batean: zerbitzuak, hirigintza, ingurugiroa egongo dira; bestean, sozio-ekonomia; eta hirugarren taldean, hezkuntza, kirola, euskera eta kultura.

Oraindik ez da jarri eztabaida bileren egunik. Bilertara datorren jendearekin hitz eginga jarriko da fetxa. □

MUS ETA TUTE TXAPELKETAK KARABEL AUZOAN

Isidro-Cano eta Elias-Alberto txapeldun



Mus eta Tuteko irabazleak, beren sariekin. Eskubian, Miranda, Belkara auzo elkarteko lehendakaria

ASTEBURUAN jokatu dira Karabelgo Tute eta Mus txapelketak. Klasifikazioa hone-lagelditu da: musean, Elias-Alberto txapeldun; bigarren, Ma-

nolo-Inazio; eta, hirugarren Dani-Teo. Tutean, Isidro-Cano txapeldun; bigarren, Agustin-Fernando; eta hirugarren Raimundo-Gaspar. *Etxekoandre*

sarian: Manuel Agirre aurrena, Pedro Moza bigarren eta Lucio Llonis hirugarren. Denara, 23 pareja izan dira. Datorren igande- an krossa izango da. □

Elur-Txoriko Mus Txapelketa asteartean hasiko da

■ Bihartik abenduaren 20ra bitartean jokatu- ko dira aurrenengo faseko partidak.

ELKARTE arteko mus txapelketa amaitu bezain laister, hasi da Elkarte bakoitza berea antolatzen. Lan honetan lehena, Elur-Txori. Bihar hasiko da bertako mus txapelketa.

Guztiak abenduaren 20rako jokatura egon beharko dute, bigarren faseari ekiteko.

Aste honetako partidak:

Abenduak 11, asteartea
Bakarka
D.Karrera / Txatxon
I.Bilbao / Aierdi
Bikoteka
Rekalde-J.Bilbao / M.Armendariz-Ceci
Ilmaz-Valero / Iturriza-Esnal
Felix-Javi / Zubillaga-Martinez
Javi-Rafa / Jokim-J.Bautista
Joshua-Gerardo / Xabier-Quijera

BIKOTEKA ETA BAKARKA

Elur-Txorin bi txapelketa jokatzeko dira, bikotekakoa eta bakarkoa. Biak bihar jarriko dira martxan. Astean hiru egunetan jokatu- ko dira partidak inulabarreko 20:00etatik 22:00-ak bitartean.

Abenduak 12, asteazkena	Abenduak 13, osteguna
Bakarka	Bakarka
Arozamena / Ilmaz	G. Bilbao / Rafa
Ormazabal / Armendariz	
Bikoteka	Bikoteka
Polo-Txepi / Txatxon-Julio	Gaztñaga-Oregi / Sagarna-I-Sagarna II
Zubeldia-XXI / Pami Lopez-Javi	Aurelio-J.R. Sanz / Diego-Antonio
Joxan-Paco / Artetxe-Aierdi	Alvaro Sanz-P.Valle / Usabiaga-Burugain
Ruso-Carlos / Arraras-Pottoko	Ududun-XXI / X.Karrera-Mitxelena
	Txemari-Angel / Lapazaran-Arozamena

KIROLAK - EMAITZAK

FUTBOLA	TALDEAK	PELOTA	PELOTA
Gorengo maila	Tolosa 0-Hernani 3	Gazteleku 3	Grajai-Apeztexea 18
Emakum. liga	Hernani 3-Luberri 1	Gazteleku 5	Aizpitarte-Iraola 18
1. Erregionala	Touring 5- Hernani 1	Berrantes-Arregi 18	Andazpe 16
Gazteak. L. Naz.	Hernani 0-Añorga 2	Arebaleta 3	Ezeiza-Huizi 22
		Erdozio-Zurutza 8	San Esteban 22
		Irazustabarrena 19	Añorga 22
		Txapagain 22	Alvarez-S.Sebastian 13
		Jubero 22	Oskarbi 18

■ HITZ BITAN

✓ BERTSOLARI TXAPELKETAKO FINALA IGANDEAN

Asteazkena arte sarrerak salgai Justo tabernan. 3.500 pztako sarrerak daude Juston. Bertsozale Elkarteko bazkide direnek, 3.000 pztan dute sarrera, baina hori lortzeko Elkarte- an jaso edo erreserba egin behar dute. Telefonoa: 943 217 798 eta E-maila bertsozale@bertsozale.com dira. **Asteazkenetik aurrera sarrerak lortzeko:** Bertsozale Elkarte- an, esandako telefonora deituta edo erreserbak egiteko jarritako helbide elektronikoan www.bertsozale.com/erreserbak.htm. Kutzako Telekutxa eta Servikutxa zerbitzuetan. Finaleko egunean, 09:30etatik 10:15ak arte zabalduko dira belodromoko takilak, baina 100 sarrera bakarrik jarriko dira salgai. □

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40: Durangoko Azokari buruzko balorazioa 12:00: Ixak Salaberriari elkarrizketa 12:30: Kolonia eta Boliviako erresistentzia mugimenduei buruz.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	✚ FARMAZIAK	► Gazez: Sagastiberri Urbiet 7 ☎ 943 552941
► Taxiak: 943 550093	► Egunez: Irigoien Elcano 2 ☎ 943 552087	✚ ASTEAZKENA
► Udaltzaingoa: 943 333288	► Gazez: Irigoien Elcano 2 ☎ 943 552087	► Egunez: Gomez Nagusia 15 ☎ 943 554892
► DYA: 943 464622	✚ ASTEARTEA	
► Anbulatorioa: 943 557750	► Egunez: Sagastiberri Urbiet 7 ☎ 943 552941	► Gazez: Gomez Nagusia 15 ☎ 943 554892
► Jokalari anonimoak 943 331103		

IRAGARKI MERKEAK

■ Gazte bat behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko. Euskaraz dakiena. Interesatu- ek deitu: 658 750896 edo 943 364605 telefonora.



Argitarapen honen laguntzaile:

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

AITAN-ETXE TABERNA

EGUNEKO MENUAK

Larramendi 15 - Tel: 943 550046 HERNANI